



## EUSKAL HERRIKO SURF FEDERAZIOA BASQUE COUNTRY SURFING FEDERATION

### BODYBOARD OPEN ETA GAZTE 2026 EZAUGARRIAK

#### OPEN EZAUGARRIAK

- **Egutegia - Datak:**
  - Bakio. Maiatzak 9-10
  - Zumaia. (Itzurun). Azaroak 7-8 / 14-15
  - Ereaga / Sopela. Azaroak 21-22/ 28-29
  - Mundaka /Bakio. Abenduak 5-6/12-13/ 19-20/ 26-27
- **Zirkuituko ezaugarriak:**

Zirkuitu bakarra bi kategoriekkin:

#### OPEN MUTILAK

- Txapelketa burutzeko gutxienez 12 parte hartzailek eman beharko dute izena.

#### OPEN EMAKUMEZKOAK

- Txapelketa burutzeko gutxienez 6 parte hartzailek eman beharko dute izena. Parte hartzaile kopurua ez balitz gutxienera iritsiko, OPEN MUTILAK kategorian izen emateko aukera izango dute, horrela OPEN MIXTO kategorია bat bilakatuz.

- **Txapelketako sistema:**

- Kanporatze sistema.  
- Egun bat edo biko txapelketak, larunbat/igande.

- **Zirkuituko sailkapen sistema:**

4 frogak izango dira (Bakio, Itzurun, Ereaga, Mundaka):

- Lau emaitzak hartuko dira kontuan.  
- Azken frogako emaitzak balio bikoitza izango du.  
- Itzurungo frogak **EUSKAL HERRIKO TXAPELKETA** izango da zirkuituko frogak izateaz gain. Frogako lehen Euskal sailkatua Euskadiko txapeldun izango delarik.

Zirkuituko lehendabiziko bi frogak irekiak izango dira (Bakio eta Itzurun). Hala ere hondartzaren ezaugarriek, mareak edo eta argi orduak txapelketa bakoitzeko iraupena baldintzatu dezakete honekin batera parte hartzaileen kopurua ere mugatu daitekeelarik.

Zirkuituko hirugarren frogak (Ereaga) mugatua izango da. Horretarako 2026ko sailkapenari erreparatuko zaio: lehendabiziko bi frogen batura eginez Bakio eta Itzurun.

Ereagan parte hartu ahal izateko beharrezkoa izango da 2026ko zirkuituko frogak bat egitea. Ereagako frogako sailkapena ondorengoa izango da:

- MUTILAK: 2026eko seedingeko TOP 16a rankingaren arabera.
- EMAKUMEZKOAK: 2026eko seedingeko TOP 8a. rankingaren arabera.

\*\*\*TOP-a betetzen ez bada antolakuntzak erabakiko du nola bete koadroak.



## EUSKAL HERRIKO SURF FEDERAZIOA BASQUE COUNTRY SURFING FEDERATION

Mundakako froga mugatua izango da, zirkuituko hiru frogetako sailkapenak baldintzatua (2026eko zirkuitua).

Mundakako frogan izena emateko gutxienez 2026ko zirkuitu bereko froga batean parte hartzea beharrezkoa izango da.

Mundakako azken frogako sailkapena ondorengoa izango da:

· MUTILAK: 2026ko TOP 8a.

· EMAKUMEZKOAK: 2026eko TOP 4a

\*\*\*TOP-a betetzen ez bada antolakuntzak erabakiko du nola bete koadroak.

- Itxarote zerrenda (Ereaga eta Mundaka): Parte hartzaileen zerrenda egingo da izena emandakoen artean, 2026ko zirkuituko seedingaren arabera, txanden koadroak osatuko dira aurre ikusitako TOPEkin eta EHSFko kanaletan publikatuko dira.

Txandetan sartu ez diren baino izen ematea gauzatu duten parte hartzaileak automatikoki itxarote zerrendan egotera pasatuko dira aurrez definitutako seedingaren ordenaren arabera.

Txapelketako lehenengo errondan itxarote zerrendako parte hartzaileak hutsuneak betetzen joango dira orden berdina jarraituz.

Behin txapelketa bukatuta, itxarote zerrendan zeuden baino parte hartzerik izan ez duten surfariei izen ematearen ordainketa bueltatuko zaie.

\*\*\*Froga egunean izen ematea edo eta ordainketa gauzatzea onartezina izango da.

### ○ Diru sariak:

- Zirkuitu osoa: 10.560,00 €

- Froga bakoitza: 2.640,00 €

\*\*\*Sariak berberak izango dira bi kategorietan (Gizonak eta emakumeak)

- Diru sariak eskuratu ahal izateko beharrezkoa izango da parte hartzaileak behintzat txapelketako erronda bat gainditzea. Horrela ez balitz, taulan aurreikusitako saririk ez litzateke banatuko finaleko partaideak salbuespen izanda.

	GIZONEZKOAK/ MIXTO open		EMAKUMEZKOAK open
1 o	430,00 €	1 o	430,00 €
2 o	320,00 €	2 o	320,00 €
3 o	230,00 €	3 o	230,00 €
4 o	170,00 €	4 o	170,00 €
5 o	50€ x2    100,00 €	5 o	50€ x2    100,00 €
7	35€        x    2 70,00€	7 o	35€ x 2    70,00€
	<b>1.320,00€</b>		<b>1.320,00 €</b>

### OHARRA:

Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru dekretuei jarraikiz diru sari guztiek %15ko atxikipena izango dute.



## EUSKAL HERRIKO SURF FEDERAZIOA BASQUE COUNTRY SURFING FEDERATION

---

### ○ Seeding 2026:

- Lehendabiziko froga, Bakio: 2025eko sailkapenaren arabera.
  - Bigarren froga, Itzurun: 2025eko zirkuitua + 2026eko zirkuituko sailkapena gehituko zaio (Bakioko froga).
  - Hirugarren froga (Ereaga): 2026eko zirkuituko sailkapenaren arabera: Bakio + Itzurun.
  - Laugarren froga (Mundaka): 2026ko zirkuituko sailkapenaren arabera: Bakio + Itzurun+ Ereaga.
- Txandak froga bakoitzeko seedingaren arabera antolatuko dira.

### ○ Izen emateak:

- **Epea:** Froga aurreko **astelehenean (24:00h PM) itxiko dira.**
- **Zenbatekoa: 40€**

Parte hartzaile guztiek, gauzatu beharko dute izen ematea aurre ikusitako epe eta bidearen arabera. Ereaga edo eta Mundakako frogetan parte hartu nahi duten guztiek izena eman behar dute ezarritako epe eta moduan; 2026 rankingean oinarritutako seeding-aren arabera TOPea sartzen direnak eta wildcardak barne.

Froga egunean izen ematea edo eta ordainketa gauzatzea onartezina izango da.

Arazo informatiko edo eta akatsen bat izango balitz izen ematean parte hartzaileak idatziz (email bitartez) jakinarazi beharko dio federazioari honekin batera arazoaren frogak atxikituz (akatsaren pantaila-argazkia edo ordaintze sistemaren agiria) izen emate epearen biharamunaren 14:00h baino lehen (froga aurreko asteartean).

Erreklamazioa ezarritako epean eta moduan egiten ez bada, parte-hartzaileak frogan izena emateko eskubide guztia galduko du.

Itxaronaldi epeak dituzten frogetan edo baldintza egokirik izan ez delako atzeratu behar izan denetan, txapelketa egingo den hala ez jakinaraziko du antolakuntzak, froga egin aurreko **asteazkenean**.

**\* Antolakuntzak argi berdea ematea edo, aitzitik, txapelketa atzeratzea erabakitzen duenerako, parte-hartzaile guztiek izen ematea gauzatua izan beharko dute aurre ikusitako epe eta bidearen arabera; froga aurreko astelehenean (24:00h PM)**

Atzerapena gertatuz gero, izena eman duten parte-hartzaileek inskripzio horri eutsiko diote, eta berriro irekiko da parte-hartzaile berrientzako izena emateko epea frogaren aurreko astelehenera arte. Eta horrela hurrenez hurren.

Froga batean izena eman eta atzeratu beharragatik, edo beste motibo batengatik, parte hartu nahi ez duten parte-hartzaileek, emailez jakinarazi beharko diote federazioari, izen-emateak itxi eta hurrengo eguneko 14:00ak baino lehen (frogaren aurreko **asteartea**), izen-ematearen zenbatekoa itzultzeko eskatuz. Une hori igarotakoan, zenbateko hori erreklamatzeko aukera galduko dute.



## EUSKAL HERRIKO SURF FEDERAZIOA BASQUE COUNTRY SURFING FEDERATION

---

### Baldintzak- Izen emateko modua:

EHSF web gunean: [euskalsurf.com](http://euskalsurf.com).

- EHSFkoak ez diren lizentziak: Federatu lizentzia eguneratua aurkeztu beharko da eskaneatuta eta email bitartez. Eta, baieztatu beharko dute, ezbeharren bat gertatuz gero, lizentziak estaltzen dituela.

#### o **Zigorrak:**

Froga ospatzen den bitartean txandaz kanpoko beste parte hartzaile batek (gainontzeko kategoria batean parte hartuta ere) lehiaketa **oztopatuko** balu eta identifikatu eta ohartarazpenari kasu egingo ez balio dagokion zirkuituko ondorengo bi frogetan parte hartzea debekatuko litzaioke.

Txapelketa baterako izen ematea gauzatu duen parte hartzaile bat **bertaratuko ez** balitz, behar bezala justifikatutako ezinbesteko kasuetan izan ezik (antolakuntzak baloratuko luke), dagokion zirkuituko ondorengo frogan (edo hurrengo urtekoan) parte hartzea debekatuko litzaioke.

Froga batean izena eman eta atzeratu beharragatik, edo beste motibo batengatik, parte hartu nahi ez duten parte-hartzaileek, emailaz jakinarazi beharko diote federazioari, izen-emateak itxi eta hurrengo eguneko 14:00ak baino lehen (frogaren aurreko asteartea).



## EUSKAL HERRIKO SURF FEDERAZIOA BASQUE COUNTRY SURFING FEDERATION

---

### EZAUGARRIAK GAZTE ZIRKUITUA 2026

#### - **Egutegia:**

- Bakio. Maiatzak 9-10.
- Zumaia. (Itzurun). Azaroak 7-8/ 14-15.
- Ereaga. Azaroak 21-22/ 28-29.

#### - **Zirkuituko ezaugarriak:**

Zirkuitu bakarra bi kategoriekin:

GAZTEAK MUTILAK (-18) eta GAZTEAK NESKAK (-18)

#### - **Txapelketako sistema:**

- Kanporatze sistema.
- Egun bat edo biko txapelketak, larunbat/igande.

#### - **Zirkuituko sailkapen sistema:**

3 froga izango dira (Bakio, Itzurun, Ereaga):

- Hiru emaitzak hartuko dira kontuan.
- Azken frogako emaitzak balio bikoitza izango du.

Zirkuituko lehendabiziko bi frogak irekiak izango dira (Bakio eta Itzurun).

Hala ere hondartzaren ezaugarriek, mareak edo eta argi orduak txapelketa bakoitzeko iraupena baldintzatu dezakete honekin batera parte hartzaileen kopurua ere mugatu daitekeelarik.

Zirkuituko hirugarren froga (Ereaga) mugatua izango da. Horretarako 2026ko sailkapenari erreparatuko zaio: lehendabiziko bi frogen batura eginez Bakio eta Itzurun.

Ereagan parte hartu ahal izateko beharrezkoa izango da 2026ko zirkuituko froga bat egitea.

Ereagako frogako sailkapena ondorengoa izango da:

- GAZTE MUTILAK: 2026eko rankinaren TOP 4 rankingaren arabera.

\*\*\*TOP-a betetzen ez bada antolakuntzak erabakiko du nola bete koadroak.

- Itxarote zerrenda (Ereaga): Parte hartzaileen zerrenda egingo da izena emandakoen artean, 2026ko zirkuituko seedingaren arabera, txanden koadroak osatuko dira aurre ikusitako TOPEkin eta EHSFko kanaletan publikatuko dira.

Txandetan sartu ez diren baino izen ematea gauzatu duten parte hartzaileak automatikoki itxarote zerrendan egotera pasatuko dira aurrez definitutako seedingaren ordenaren arabera.

Txapelketako lehenengo errondan itxarote zerrendako parte hartzaileak hutsuneak betetzen joango dira orden berdina jarraituz.



## EUSKAL HERRIKO SURF FEDERAZIOA BASQUE COUNTRY SURFING FEDERATION

---

Behin txapelketa bukatuta, itxarote zerrendan zeuden baino parte hartzerik izan ez duten surflariei izen ematearen ordainketa bueltatuko zaie.

\*\*\*Froga egunean izen ematea edo eta ordainketa gauzatzea onartezina izango da.

- **Seeding 2026:**

- Lehendabiziko froga, Bakio: 2025eko sailkapenaren arabera.
- Bigarren froga, Itzurun: 2025eko zirkuitua + 2026eko zirkuituko sailkapena gehituko zaio (Bakioko froga).
- Hirugarren froga (Ereaga): 2026eko zirkuituko sailkapenaren arabera: Bakio + Itzurun.

Txandak froga bakoitzeko seedingaren arabera antolatuko dira.

- **Izen emateak:**

- **Epea: Froga aurreko astelehenean (24:00h PM) itxiko dira.**
- **Zenbatekoa: 30€**

Parte hartzaile guztiek, gauzatu beharko dute izen ematea aurre ikusitako epe eta bidearen arabera. Ereaga edo eta Mundakako frogetan parte hartu nahi duten guztiek izena eman behar dute ezarritako epe eta moduan; 2026 rankingean oinarritutako seeding-aren arabera TOPEan sartzen direnak eta wildcardak barne.

Froga egunean izen ematea edo eta ordainketa gauzatzea onartezina izango da.

Arazo informatiko edo eta akatsen bat izango balitz izen ematean parte hartzaileak idatziz (email bitartez) jakinarazi beharko dio federazioari honekin batera arazoaren frogak atxikituz (akatsaren pantaila-argazkia edo ordaintze sistemaren agiria) izen emate epearen biharamunaren 14:00h baino lehen (froga aurreko asteartean).

Erreklamazioa ezarritako epean eta moduan egiten ez bada, parte-hartzaileak frogan izena emateko eskubide guztia galduko du.

Itxaronaldi epeak dituzten frogetan edo baldintza egokirik izan ez delako atzeratu behar izan denetan, txapelketa egingo den hala ez jakinaraziko du antolakuntzak, froga egin aurreko asteazkenean.

\*Antolakuntzak argi berdea ematea edo, aitzitik, txapelketa atzeratzea erabakitzen duenerako, parte-hartzaile guztiek izen ematea gauzatu izan beharko dute aurre ikusitako epe eta bidearen arabera; froga aurreko astelehenean (24:00h PM)

Atzerapena gertatuz gero, izena eman duten parte-hartzaileek inskripzio horri eutsiko diote, eta berriro irekiko da parte-hartzaile berrientzako izena emateko epea frogaren aurreko astelehenera arte. Eta horrela hurrenez hurren.

Froga batean izena eman eta atzeratu beharragatik, edo beste motibo batengatik, parte hartu nahi ez duten parte-hartzaileek emailaz jakinarazi beharko diote federazioari, izen-emateak itxi eta hurrengo eguneko 14:00ak baino lehen (frogaren aurreko asteartea), izen-ematearen zenbatekoa itzultzeko eskatuz. Une hori igarotakoan, zenbateko hori erreklamatzeko aukera galduko dute.



## EUSKAL HERRIKO SURF FEDERAZIOA BASQUE COUNTRY SURFING FEDERATION

---

Baldintzak- Izen emateko modua: EHSF web gunean: euskalsurf.com.

- EHSFkoak ez diren lizentziak: Federatu lizentzia eguneratua aurkeztu beharko da eskaneatuta eta email bitartez. Eta, baieztatu beharko dute, ezbeharren bat gertatuz gero, lizentziak estaltzen dituela.

- **Zigorrak:**

Froga ospatzen den bitartean txandaz kanpoko beste parte hartzaile batek (gainontzeko kategoria batean parte hartuta ere) lehiaketa oztopatuko balu eta identifikatu eta ohartarazpenari kasu egingo ez balio dagokion zirkuituko ondorengo bi frogetan parte hartzea debekatuko litzaioke.

Txapelketa baterako izen ematea gauzatu duen parte hartzaile bat bertaratuko ez balitz, behar bezala justifikatutako ezinbesteko kasuetan izan ezik (antolakuntzak baloratuko luke), dagokion zirkuituko ondorengo frogan (edo hurrengo urtekoan) parte hartzea debekatuko litzaioke.

Froga batean izena eman eta atzeratu beharragatik, edo beste motibo batengatik, parte hartu nahi ez duten parte-hartzaileek, emailez jakinarazi beharko diote federazioari, izen-emateak itxi eta hurrengo eguneko 14:00ak baino lehen (frogaren aurreko asteartea).